



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZOA: ALTZIBAR

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2022-09-29	19:00	21:15

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexus Leonet, Agustin Lekuona, Jon del Olmo, Enekoitz Marcos eta Arrosa Lizaso			
Herritarrak:	Euskaraz: 41		Ele bitan: 3	
	Emakumezkoak: 21		Gizonezkoak: 23	
	<30 urte: 7	31-50 urte: 18	51-65 urte: 13	>66 urte: 6

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Auzoa	ALTZIBAR
Aurkezpena	. Hobariak eta balorazio orriak banatu dira euskaraz eta elebitan. . Udal zinegotziek hainbat gai ezberdinen azalpenak egin dituzte.
Legealdiko balorazioa	Legealdiko balorazioa egin da. Horren aurrean poligonoen biziberritzean inguruan zertan datzan galdetu da. 7000 bat pertsonen bertan lan egiten dutela kontuan hartuta, horrek dakarren garrantziarekin, batik bat inguruak txukun edukitzean datzala esan da, bide berritzeak, espaloia, eta abar. Urkabebaitan inguruan ere interesa adierazi da. Baita ere Babes ofizialeko etxebizitzan inguruan ere galdetu da, Oiartzunen egiteko asmorik dagoen jakiteko, gaur egun legedia nola dagoen adierazi zaie.
2023ko aurreikuspena	Aurrekontuak: Zergen inguruan galdetu da, haien igoera dela ikusita Oiartzungo udalaren zorra momentu honetan kitatu dela adierazi ondoren. Adierazi zaie, egoera aldarorra denez zentzuz jokatzea erabaki dela, igoera minimo bat mantentzen saiatuaz

eta behar gehien dutenei laguntza larroak indartuaz, familia monoparentalak, diru sarrera gutxien dutenak eta abar, egoera aldakorra baita.

Auzoa:

Egin behar diren etxe berrien inguruan galdetu dute. Udalak bere aldetik baimen guztiak emanak dituela adierazi zaie, promotoreak aurrera egiten ez duela adierazi zaie, jakin gabe zergatia.

Parkinaren zati bat zergatik ez den asfaltatu galdetu dute, udalaren nahia hala izan arren, lurraren kategoria rurala izanik ezin zen dena asfaltatu.

“Azpeitiak” egin behar zituen etxeei buruz galdetu dute. Udalean baimenak eskatu dituztela adierazi zaie eta tramiteak egiten ari direla.

Parkin berriaren inguruan eskakizun bat egon zen, furgonetak/karabanak hor aparkatzeko nahia, behintzat bertakoentzat, izan ere, bizilagun batek baina gehiagok erabiltzen du furgoneta bere egunerokotasunean eta aparkatzeko arazoak izaten dituzte. Jarritako galibo hori kentzeko eskatzen da. Udalak erantzuten du, horrelako lekuak lehen beharrak betetzeko (autoen aparkalekua) lehenetsi dela. Auzokide batek bere kezka adierazi du, karabanentzako leku bezala bihurtuko ote den, agian kanpoko jendea etor daitekeela.

Trafiko aldetik bi kezka azaltzen dira; batetik biribilgunea arriskutsu dagoela, Olaldeko sarreran, ez dela zeda egiten, ez dela ongi ikusten. Eta bestetik, Eroski dendaren aurrean bigarren hileria aparkatzen dela adierazi da. Udalak egoera aztertzeko konpromezua hartu du.

Frontoia:

Udalak egindako azterketa ezberdinak aurkeztu dira eta zein ikusten den egokiena esan da. Aho batez ongi ikusi da.

Auzotar batek frontoiaren beharra zalantzan jarri badu ere, beste auzotar batzuk garbi adierazi diote aterpe baten beharra auzoan hainbat gauza ezberdinetarako. Eraikina polibalente da, haurrentzako, jaietako aterpe eta abar, aspaldiko eskaera da.

Estetika zaintzeko eskatu da.

Parkina:

Aparkatzeko eremua handitzea zen Udalaren asmoa. Ur-agentziak ez du uzten.



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>Momentuz eremu berdea bezala geldituko da. Aztertuko da zer egin.</p> <p>Auzotar batek komentatu du eremu berde gehiago behar direla Altzibarren.</p> <p>Txakur gunea:</p> <p>Momentuz ez dela ikusten adierazi da.</p>
Beste hainbat gai - ekarpen	<ul style="list-style-type: none">. Atletismoko eremu baten eskaera egin da, baina herri mailan aztertzeko.Ez dagoela aurreikusia momentuz azaldu zaio.. Jolas lekuren bat estalia izateko eskaerak egin dituzte. Udalak hau aztertzeko konpromezua hartu du.. Obrarekin norabideak nola geldituko diren galdetu da, berdin geldituko dela adierazi da, baina oinezkoak lehentasuna izango dute.. Eroski inguruan, gaizki aparkatzen den horretan seinale bat jartzea eskatzen da.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,5
bilera ongi gidatu da	8,5
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,2
Auzotar kopurua	7,1
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,3
Saioa probetxugarria izan al da?	8,2
Egunaren egokitasuna	8
Orduaren egokitasuna	7,8
Lekuaren egokitasuna	8,6